



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Deialdia, plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko; plazaren ezaugarriak: Administrazio Bereziko eskala, Zerbitzu Bereziako azpieskala, hainbat lanbidetako langile klasea, ofizial elektrikaria, C taldea, C2 azpitaldea.

Alkateak 2154/2024 (2024/05/28) Dekretua eman du. Zera dio testuak:

Ikusi da azaroaren 15eko 3762/2021 Dekretuaren bidez xedatutakoa. Dekretu horren bidez, Basauriko Udalaren 2021eko ekitaldirako lan-eskaintza zabaltzea onartzen da, dagozkion hautaketa-prozesuen bidez bete beharko diren plazak jasotzen dituen (hemen argitaratu zen osorik: 2021eko azaroaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 227. zenbakia). Dekretu horren bidez, besteak beste, honako lanpostu hauek onartu ziren: Administrazio Bereziko Eskalako lanpostu bat, Zerbitzu Bereziako azpieskala, Hainbat lanbidetako langile klasea, C taldea, C2 azpitaldea, ofizial elektrikaria eta,

Gero, 2024ko maiatzaren 2an, ofizial elektrikariaren plazaren gaia landu zuten Negoziazio Mahaian, eta hautapen-prozesua arautuko zuten oinarri espezifikoak ere negoziatu zituzten, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategin onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 20.c) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Horrez gain, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioa izateko hautapen-prozesuak arautuko dituzten Oinarri Orokorak onetsi zituen ekainaren 1eko 2311/2022 Dekretuak, zeina urte bereko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (110. zenbaki) argitaratu baitzen.

Horrekin batera, baina, eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko hautapen-prozesu bakoitzerako oinarri espezifikoak argitaratu behar dira, deialdi bakoitzaren berezko ezaugarriak zehaztuta.

Aurrekontuak Betearazteko Udal Arauan xedatutakoaren arabera, jakinarazten da deialdi honen xede den plazak ez dakarrela I. kapituluko gastua handitzea, une honetan bitarteko funtzionarioek betetzen dutelako plaza hori eta 2024ko ekitaldiaren hasieran onartutako baimenean eta xedapenean sartuta daudelako.

Horrela, bada, adierazitako guztia aintzat hartuta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21 g) artikulua esleitutako eskumenetan oinarrituta, alkateak honako hau

XEDATZEN DU:

Lehenengoa: Oinarri hauen xede diren hautapen-probetarako deialdia egitea.

Bigarrena: Administrazio Bereziko eskalako, Zerbitzu Bereziako azpieskalako, hainbat lanbidetako langile klaseko, C taldeko, C2 azpitaldeko ofizial elektrikari plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onestea; plazari 1. hizkuntza-eskakizuna dagokio, baina ez da nahitaezkoa.

Hirugarrena: Oinarri espezifiko horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta deialdiaren laburpena BOEn argitaratzeko agindua ematea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluaekin bat.

Basaurin, 2024ko maiatzaren 31n.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



ONARRI ESPEZIFIKOAK: ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZETAKO AZPIESKALA, HAINBAT LANBIDETAKO LANGILE KLASEA, C TALDEA, C2 AZPITALDEA, OFIZIAL ELEKTRIKARIA

1. Deitutako plazak

Ofizial Elektrikari plaza bat (1) betetzeko deialdia egiten da. Plaza hori Administrazio Bereziko eskalakoa da, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak, hainbat lanbidetako langile klasekoa, C taldekoa, C2 azpitaldekoa, 17. lanpostu-mailako osagarria dagokio, eta 17H berariazko osagarria. Plaza hori txanda irekian beteko da, oposizio-sistema bidez, eta 1. hizkuntza-eskakizuna dagokio, baina ez da nahitaezkoa.

Deitutako plaza 2021eko LEPari dagokio.

Deitutako plazen kopuruari hutsik geratzen ahal diren lanpostuak gehitu ahal izango zaizkio, betiere alkate-udalburuaren ebazpen bidez jasoz gero deialdi honetan. Edoze-lan ere, hasieran deitutako plazen kopurua handitu behar baldin bada, deialdia gainditu dutenen zerrenda argitaratu aurretik egin beharko da.

Eginkizunak

Orokorrak

Tailerreko berezko lanak egitea, hain zuzen ere, erabilerako ondasunei edota zerbitzu publikoei lotutakoak. Lanpostuaren eginkizunak aurrera eramateko esleitutako baliabide materialak edota giza baliabideak kudeatzea. Laguntzaileek eta lan-kontratudunek tailerrean egindako lanak kontrolatu eta ebaluatzea.

Berariazkoak

Udal eraikinetan eta bide publikoetan elektrizitate-lanak egitea, erabilera- eta kontserbazio-egoera onean mantentzeko. Argiteria publikoko instalazioak, argiak, hartuneak eta abar egin eta konpontzea. Jendaurreko ikuskizunetarako instalazio elektrikoak muntatu eta desmuntatzea eta abar. Laguntzaileek eta lan-kontratuko langileek egindako lanak gainbegiratzea. Langileak lanean hasteko hautaketa-probak egiten laguntzea eta, oro har, lanbideari eta kategoriari lotuta bere nagusi funtzionalak agintzen dizkion lan guztiak egitea.

2. Baldintzak

Alkatearen uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritako baldintzak betetzeaz gain:

- DBHko titulazioa, eskola-graduata, LH1 mailako titulazioa edo baliokidea izatea. Baliokidetzatza egiaztatzeko, administrazio eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute izangaiek. Atzerrian eskuratutako tituluak dituztenek, berriz, egiaztatu beharko dute badaukatela dagokion baliokidetzatza, edo, bestela, tituluaren homologazioa jasotzen duen egiaztagiria.
- Azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izana. C2 azpitalderako tasaren zenbatekoa 9,00 euro da.

3. Eskabideak aurkeztea

3.1. Epea

Hautapen-prozesuan onartuak izateko eskabide normalizatuak hoge (20) egun baliouduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

3.2. Eskabidearen baldintzak

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute eskabidea eta, horretarako, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://www.sedeelectronica.basauri.eus>) eskuragarri dagoen eskabidea bete beharko dute.



Baliabide propiorik izan ezean, Udalak aurrez aurreko arretarako gune bat jarriko du Udalaren Herritarren Arretarako Zerbitzuan, izapideak egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoak eskaintzeko.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Izangaiek eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, 2. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Horretarako, izangaiek honako hauek jaso beharko dituzte instantzietan, dagozkien ataletan:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Deialdian parte hartu ahal izateko baldintza gisa eskatzen diren eta aurkezten diren ikasketa-titulu ofizialak.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, baldin badaukate. Bestela, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izango dute 8.3 oinarrian hirugarren ariketarako ezarritako moduan eta epean.

Hautapen-prozesuari buruzko argibideak edo informazioa behar izanez gero, posta elektronikoz eskatu beharko dira, eskabide-inprimakiarekin batera adieraziko den helbidean.

4. Dokumentuak aurkeztea

4.1. Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak

2. oinarrian adierazitako parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa hautaketa-prozesua gaingitu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren aurkeztuko da, 8. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, dokumentazioa aurkezten ez dutenek edo dokumentazioa aztertuta 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, praktiketako edo karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskabidean gezurrezko datuak emategatik izan ditzaketen erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Ez da beharrezkoa izango Basauriko Udaleko langileen espedientean dauden dokumentuak aurkeztea; kasu horretan, nahikoa izango da epe barruan alegatzea. Udalak telematikoki kontsulta ditzakeen dokumentuak ere ez dira aurkeztu beharko.

4.2. Dokumentuak itzultzea eta konpultsatzea

Espainiako nazionalitatea ez dutenek dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute, euskarara edo gaztelaniara egindako itzulpen ofizialarekin batera. Itzulpena zinpeko itzultzaileak eginga behar du, edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, jatorrizkoak edo kopia konpultsatutak aurkeztu behar dira.

5. Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartuen eta baztertuen zerrenda onetsiko da alkatearen dekretu bitartez. Bazter utzitako kasuan, horretarako arrazoiak adierazi beharko dira; eta eskabidean akatsak edo hutsuneak zuzendu behar dituztenen kasuak ere zehaztuko dira. Aipatutako ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10 egun balioduneko epea egongo da akatsak edo hutsuneak zuzentzeko, aurreko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Gero, alkateak beste ebazpen bat emango du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin. Ebazpen hori ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.



Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, besterik gabe.

Izangaiak onartu izanak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean baztertuak ez izateko eskubidea izango dutenik: alde batera utzita proba guztiak egiten dituzten ala ez, izangaiak kanporatuak izan daitezke, baldin eta aurkeztu dituzten datuak edo agiriak aztertu ondoren ikusten bada ez dituztela betetzen onartuak izateko eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ezarritako baldintzak. Kasu horretan, epaimahaiak baztertze-proposamena aurkeztuko dio alkate udalburuari, betiere interesdunarekin entzunaldia egin ondoren, dagokion ebazpena eman dezan.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen dekretuan baztertu gisa agertzen diren izangaiek errekursoak aurkezten badituzte, eta, hautaprobak egiteko datan, errekurso horiek oraindik ebatzi gabe badaude, izangai horiek hautaprobak egin ahal izango dituzte, nahiz eta, gero, aipatutako errekursoak ezesten badira, ez duten baliorik izango.

6. Epaimahai kalifikatzailea

6.1. Alkatearen dekretu bidez jakinaraziko dira, batetik, hautaketa-epaimahaiaren osaera, eta, bestetik, lehenengo ariketa egiteko tokia, data eta ordua.

6.2. Epaimahaiaren osaerak bat egingo du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluekin (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen aipatutako testu bategina). Epaimahaiaburuak, idazkariak eta lau epaimahaikidek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea, eta kide guztiek eduki beharko dute deialdian parte hartzeko eskatutako titulu akademikoaren maila bereko edo goragoko titulazioa. Bestalde, Epaimahaiko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Idazkariak, aldiz, hitz egin bai, baina ezin izango du botorik eman. Epaimahaia osatu beharko da kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioetatik abiatuta. Gainera, osaera parekidearen alde egingo da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Epaimahaikideetako bat izendatuko da Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen proposamenari jarraituta.

6.3. Epaimahaiak aholkulariak deitu ahal izango ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautapen-prozesuaren proba batzuetan edo guztietan. Halaxe aurreikusten du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikulua.

6.4. Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gauzatzen bada; eta, kasua hori bada, horren berri eman beharko diote alkate udalburuari. Era berean, Lege beraren 24. artikuluan arabera, izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, aurreko artikuluko arrazoiren bat tarteko denean.

6.5. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kontuetarako, Epaimahaiaren jarduteko prozedurak bat egingo du alkatearen uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorrekin, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan ezarritakoarekin.

7. Deialdiak eta jakinarazpenak

Alkatearen eta Epaimahaiaren erabakiak deialdiari, emaitzei eta notei buruz, bai eta beste jakinarazpen eta ebazpen batzuk ere, Interneten argitaratuko dira, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan. Horrek ez du eragotziko egoki irizitako beste publizitate-bide batzuk ere baliatzea.



8. Hautapen-prozesua

8.1 *Lehen ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)*

Bi atal izango ditu, eta bietako bakoitza gainditu beharko da:

- A) atala: Epaimahaiak ezarritako gehieneko denboran, oinarri hauetako gai-zerrendaren zati orokorreko eta espezifikoko (I. eranskina) edukiei buruzko erantzun anitzeko galderei erantzutea. Galdera bakoitzeko 4 erantzun egongo dira, eta txarto erantzundako galderek puntuak kenduko dituzte.

Puntuazio zuzena honelaxe kalkulatu da: ondo erantzundakoak ken txarto erantzundakoen herena ($P = O - T/3$). Erantzun gabe utzitakoak ez dira akats gisa zenbatuko.

Ariketaren azken puntuazioa 0-10 bitartekoa izango da, eta bi dezimal onartuko dira. 5,00 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak prozeduratik kanpo geratuko dira.

- B) atala: galdera alternatibo sorta bat izango da, non Epaimahaiak proposatutako kasu teoriko-praktiko(k) ebatzi beharko bait(ir)a. Kasu hori(ek) deialdiko gai-zerrendaren I. eranskinaren zati espezifikoa (I. eranskina) buruzkoa(k) izango d(ir)a, eta txarto erantzundako galderek puntuak kenduko dituzte.

Puntuazio zuzena honelaxe kalkulatu da: ondo erantzundakoak ken txarto erantzundakoen herena ($P = O - T/3$). Erantzun gabe utzitakoak ez dira akats gisa zenbatuko.

Ariketaren azken puntuazioa 0-20 bitartekoa izango da, eta bi dezimal onartuko dira. 10 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak prozeduratik kanpo geratuko dira.

Epaimahaiak ahalmena izango du A) atala gainditzeko ez duten izangaiei ariketaren B) atala ez zuzentzeko.

Hautapen-prozesutik kanpo geratuko dira Epaimahaiak ariketa bakoitza gainditzeko finkatutako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten izangaiek.

Lehenengo ariketaren kalifikazioa ariketaren bi ataletan lortutako puntuazioaren batura izango da, baldin eta bi atalak gainditu badira.

8.2. *Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)*

Izangaiek epaimahaiak planteatutako kasu praktiko bat edo batzuk egin beharko dituzte, gai-zerrendan jasotako gaiekin lotuta. Puntuazioa 0 puntutik 40 puntura bitartekoa izango da, eta bi dezimal onartuko dira. 20 puntu lortu beharko dira proba gainditzeko.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren Ebazpen bidez ezarritako hurrenkeran —ebazpen hartan argitaratu zen Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako Erregelamendu Orokorrean aipatzen den zozketaren emaitza, proba egingo den urtekoa—.

Proba hasi aurretik, epaimahaiburuak (edo hark eskuordetutako epaimahaikideak) probaren fitxa formalizatuen edukiaren berri emango die izangaiei, ozenki. Fitxa horietan zehaztuko dira egin beharreko lanak, erabilgarri egongo diren materialak, proba egiteko denbora eta lanen kalitate-estandarrak.

Ariketa horretan honako hauek ebaluatuko dira: kasu praktikoak ebazteko gaitasuna; materiala, makinak eta lan-teknikak egokiro erabiltzea; lanak garbitasunez eta segurtasunez egitea, eta Ofizial elektrikaria baten zereginari dagozkien ezagutza teoriko-praktikoak modu arrazoituan aplikatzea. Udalak hornituko ditu proba egiteko beharrezko materialak, baliabide teknikoak eta lanabesak.

8.3. *Hirugarren ariketa (borondatezkoa eta ez baztertzaila). Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba*

Izangaiek euskarako 1. hizkuntza-eskakizunari dagozkion ezagutzak egiaztatu beharko dituzte (ez da nahitaezkoa).



Ez dute euskara-proba egin beharrik berau hasi aurretik Epaimahaiari egiaztatzen diotenen honako egoeretako batean daudela:

1. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat, edo horien baliokidea den titulu edo egiaztagiria badaukatela, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
2. Proba egitetik salbuetsita daudela, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera.

Hizkuntza-eskakizuna honelaxe egiaztatuko da:

- a) IVAPek, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiri edo tituluak dituztenek baimena eman ahal izango diote Basauriko Udalari, hautapen-prozesuan parte hartzeko egiten duten eskabidean bertan, ziurtagiri edo titulu horiek dituztela egiaztatzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren beste euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituztenek, Udalari egiaztatzeko baimenik ematen ez diotenen edo tituluak gero lortzen dituztenek dagokion titulu edo egiaztagiria kopia aurkeztu beharko dute, euskara-probak egiteko data baino lehen.

- b) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizuneko azterketa egitetik salbue-tsita daudenek —ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin izanagatik— hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, euskara-proba egiteko data baino lehen, ikasketak amaitu dituzten zentro edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

Ariketa honetan 3,50 puntu emango dira.

9. Prozesuaren emaitza eta dokumentuen aurkezpena

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztien batura izango da (betiere gainditu badira). Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da.

Behin hautaketa-prozesua amaituta, Epaimahaiak Udalaren helbide elektronikoan (7. oinarria) argitaratuko ditu gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran, eta berariaz adierazita plaza betetzeko hautatutakoak nortzuk diren. Hautatutakoaren kopurua ezingo da izan deitutako plazena baino handiagoa.

Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute bidezko jotzen dituzten erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, Epaimahaiak horiek ebatzi beharko ditu eta, horren ondoren, hautapen-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Horren ostean, Epaimahaiak praktiketako funtzionario izendatzeko proposatzen dituen izangaiei zerrenda argitaratuko du, eta 15 egun balioduneko epea zabalduko du, izangai horiek dokumentu konpultsatu bidez egiazta dezaten parte hartzeko 2. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela. Era berean, izangaiek honako agiri hauek entregatu beharko dituzte:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Atzerriko izangaiek jakinarazpen bat jasoko dute Basauriko Udaletik, eta bertan adieraziko diete beren egoera kontuan hartuta zein agiri zehatz aurkeztu beharko duten, derrigorrez.
- c) Zinpeko aitortpena, adieraziz norbera ez dagoela ez funtzio publikoetan jarduteko gaitasungabetua, ez edozein herri administrazioetako zerbitzutik diziplina-espediente bidez baztertua, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean herri administrazioetako langileentzat aurreikusitako ezintasunerako eta bateraezintasunerako lege-arrazoietan sartuta ere.



- d) Espainiako nazionalitaterik ez duten izangaiek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daukatela beren estatuan funtzio publikora sartzea galarazten dien diziplina-zigorrik edo zigor penalik.
- e) Era berean, hautatutakoek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien probak eta osasun-azterketak egin beharko dituzte, Basauriko Udalak dituen lan-osasun zerbitzuetan. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plaza eta aurkezten diren izangaiek, gainera, eskatzen dituzten deialdiko lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzeko gaitasunaren ziurtagiria lortu beharko dute, Basauriko Udaleko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak emana. Lanpostua betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzen duten probak eta mediku-azterketak egiteko deialdia modu pertsonalizatuan egingo da.

Adierazitako epe barruan, eta ezinbesteko arrazoiak gertatzen direnean salbu, proposatutako izangaiek ez badute dokumentazioa aurkezten, edo ez badute egiaztatzen eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, ezin izango dira funtzionario izendatu, eta beren jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira; eta horrek, gainera, ez du eragotziko eskabidea faltsutzeagatiko erantzukizuna leporatu ahal izatea. Kasua hori denean, izangaiek hautapen-prozesuko emaitzan izandako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, ordeztukoak, aurretiaz, lehen aipatutako agiriak aurkeztu eta gero.

10. Praktikaldia eta prestakuntza

Sei hilabeteko praktika- eta prestakuntza-aldia egingo da, Alkatearen uztailaren 1eko 2377/2022 Dekretuaren bidez onetsitako Oinarri Orokorren hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

11. Izangaiek izendatzea eta plazaz jabetzea

Izangaiek Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatuko dira Alkatearen uztailaren 1eko 2377/2022 Dekretu bidez onetsitako Oinarri Orokorren hamabigarren oinarrian xedatutakoarekin bat.

12. Lan poltsa

Hautapen-prozesuaren emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, 3 urteko iraupena izango du lan-poltsa horrek, eta aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko baliatuko da. Lan-poltsa, bestalde, Basauriko Udaleko lan-poltsa buruzko araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, jarraian datorren paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturiko lan-poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuen aurrean lehentasuna izango dute nahitaezkoak eta baztertzailak diren probarik gehien gainditu dituzten izangaiei zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan kalifikaziorik altuena duenaren alde egingo da.

13. Izaera pertsonaleko datuak babestea

Hautapen-prozesuan zehar jasotako edo sortutako izaera pertsonaleko datuak tratatu egingo dira, datuen babesaren alorreko indarreko araudian ezarritakoarekin bat.

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean gordeko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da hautapen-prozesua kudeatzeko, bai eta bitarteko funtzionarioak aldi baterako kontratatze eta izendatzeko osatzen den lan-poltsa kudeatzeko ere.

Deitutako plazak lortu nahi dituztenek beren berariaz eman behar dute adostasuna segurtasun-neurriak behar dituzten eta hautapen-prozesurako beharrezkoak diren datuak tratatuak izateko.



Hautaketa-prozesuan emandako datuak beste administrazio publiko batzuei laga daitezkie, hala eskatzen badute. Titular diren datu pertsonalen lagapen hori egitea nahi duten izangaiek berariaz eman beharko dute baimena.

Hautapen-prozesuan parte hartzen dutenen informazio-eskubidea bermatzeko, prozesuko zerrenda guztiak Internet bidez kontsultatu ahal izango dira, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan.

Eskabidean jasotako helbidea, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak baliozkozat joko dira. Eskabidea egiten dutenen erantzukizuna da, ez beste inorena, datu zuzenak ematea eta Epaimahaiari horien gaineko aldaketen berri jakinaraztea.

Egin beharreko jakinarazpenetarako, eskabidean adierazten dena hartuko da jakinarazpenetarako helbidetzat, ez bada gerora beste bat jakinarazten zaiola deialdia egin duenari, berariaz eta modu frogagarri batean.

14. Gorabeherak

Epaimahaiak oinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztiari buruz sor daitezkeen zalantzak ebatzi, eta hautapen-prozesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak har ditzake.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardueratik erator daitezkeen administrazio-egintza guztien kontra egin dezakete, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.



I. ERANSKINA

GAITEGIA

ZATI OROKORRA

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa Printzipio orokorrak.
2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: Euskal Herriaren Autonomia Estatu-tuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa: Atariko titulua.
3. gaia: Udal-antolaketa. (Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua). Udal-antolake-ta (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 19. eta 20. artikulua).
4. gaia: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Ber-dintasan Eragingarrirakoa. Legearen xedea. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa. Administrazio publikoen jarduteko irizpideak (1., 2., 3. eta 51. artikulua)

ZATI ESPEZIFIKOA

5. gaia: Elektrizitatea. Fenomeno elektrikoak, magnetikoak eta elektromagnetikoak, eta horien aplikazioak. Ohm-en eta Joule-ren legeak. Zirkuitu elektriko monofasikoak eta trifasikoak. Korrante alternoa eta jarraitua. Energia elektrikoak.
6. gaia: Parametro elektrikoak neurtzea, konexio- eta neurketa-prozedura. Tentsioak, intentsitatea, erresistentzia, jarraitutasuna, isolamendua, lurren erresistentzia elektrikoak neurtzea, potentzia, kontsumoa, potentzia-faktorea. Sare-analizagailuak, ezaugarriak, erabilerak eta instalazioak. Harmonikoak sare elektrikoetan; arrazioak, ondorioak eta konponbideak.
7. gaia: Maniobra, agintea eta babesaren erdi- eta behe-tentsioan: gai orokorrak, identi-fikazioa eta ezaugarri teknikoak, etengailu, disjuntore, ebakigailu, fusible, etengailu auto-matiko magnetotermiko, etengailu diferentzial, gaintentsioen aurkako babes, kontaktore, programagailu eta abarretan.
8. gaia: Zirkuituak kanalizatzeko, matxurak detektatzeko, koadroak manipulatzeko eta aireko lineetan lan egiteko bitartekoak, erremintak eta lanabesak.
9. gaia: Elektrizitate-lanetarako materialak (kableak, mekanismoak, babesak, finka-tze-elementuak, kutxak, fusibleak, petakak, konektoreak, etab.), ezaugarriak eta zehaz-tapenak.
10. gaia: Kalkuluak behe-tentsioko instalazio elektrikoetan: potentzien aurreikuspe-na, eroaleen sekzioa, behe-tentsioko instalazioak kalkulatzeko prozedura normalizatuak. Instalazio elektrikoaren irudikapen grafikoa eta sinbologia: Irudikapen-arauak. Instala-zio elektrikoaren sinbologia normalizatua. Plano eta eskema elektriko normalizatuak. To-pologia. Eskema elektrikoak egitea eta interpretatzea.
11. gaia: Makinen mantentze-lanak: transformadoreak. Pilak eta metagailuak. Kon-dentsadoreen bateriak. Sorgailuak eta motorrak. Automatismoak eta koadro elektrikoak: motor elektrikoaren potentzia-, aginte- eta erregulazio-eskemak. Maniobra eta biratze-in-bertsioak motorretan. Motor bat abiaraztea izar-triangulu konexioan. Maiztasun-erregu-lagailua.
12. gaia: Elektrizitate-instalazioak etxebizitzetan eta eraikinetan. Behe-tentsioko instalazio elektrikoak: definizioa eta sailkapena. Hargunea, babes-kutxa nagusia, ba-naketa-linea. Energia elektrikoaren kontagailua, zentralizazioak. Banakako deribazioa. Etxebizitzetan barruko instalazioak. Megafonia-instalazioak. Antenak. Barne-telefoniako eta interkomunikazioko instalazioak. Informatika-sareak: oinarrizko kontzeptuak. Infor-matika-sareen sailkapena. Sareko kableak, kategoriak eta konektoreak. Zuntz optikoa.
13. gaia: Erdi-eta goi-tentsioko energia elektrikoaren banatzeko sareak: sailkapena, ten-sioak, kategoriak, eroale motak eta identifikazioa, babes-, maniobra- eta ebaketa-tres-neria. Erdi-tentsioko sareen banaketa ohikoenak. Aireko eta lurpeko sareak.



14. gaia: Behe-tentsioko energia elektrikoa banatzeko sareak: korrante motak, tentsioak eta linea motak. Aireko eta lurpeko sareak. Sareen banaketa ohikoenak. Eroale motak, identifikazioa eta ezaugarriak.

15. gaia: Behe-tentsioko araudi elektroteknikoa: lotura-instalazioak, jendearentzat zabalik dauden lokaletako instalazioak. Kanpoko argi-instalazioak, babesak, instalazio bereziak, eranskinak.

16. gaia: Eguzki-energia fotovoltaiakoaren instalazioak: eguzki-energia fotovoltaiakoaren aplikazioak. Instalazio fotovoltaiakoen osagaiak. Sarera konektatutako edo autokontsumorako sistema fotovoltaiakoak. Metaketa.

17. gaia: Kanpoko argi-instalazioak: kanpoko argi-instalazioak aplikatzeko gida teknikoa (BT-09 gida). Kanpoko argiterian erabiltzen diren lanpara motak eta lanparak konektatzeko eskemak. LEDak; horiek hautatzeko, jartzeko eta mantentzeko kontuan hartu beharreko ezaugarriak eta berezitasunak. Kanpoko luminariak, horien instalazioa, eta luminariei eusteko edo finkatzeko elementuak. Matxurak: detektatzea, minimizatzea eta konpontzea. 1890/2008 Errege Dekretua, kanpoko argien instalazioetan energia-efizientziari buruzko erregelamendua onartzen duena.

18. gaia: Unitate elektrogenoak: unitate elektrogeno bat abiarazteko eta geldiarazteko prozesuak. Unitatearen babesa: alarmak. Neurri elektrikoak. Unitate elektrogenoak mantentzea.

19. gaia: Ingurumenaren babesa: ingurumen-kutsadurari buruzko oinarritzko nozioak. Kategoriako funtzioei lotutako ingurumen-arrisku nagusiak.

20. gaia: Prebentzioko arau-esparrua. Laneko lekuetan eta espazioetan bete beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak, seinaleei eta lan-ekipamenduen erabilerari dagokienez. Elektrikariaren eginkizunen barruan, laneko arrisku espezifikokoak, eta babes-neurri indibidualak eta kolektiboak. Garaieran egindako lanak (eskailerak, saski jasogailua duten kamioiak, plataforma jasogailuak...). 614/2001 ED. Arrisku elektrikoa.